



Cipriana Roblesek 100 urte.- 100 urte bete zituen Cipriana Robles herritarrek asteartean eta Atsobakarreko langile eta kideek, Roblesen familiarekin batera, festa berezia egin zioten. Bertan tarta izan zen denentzat eta Ciprianak pozik hartu zituen bildutakoek zorianak eta opariak. Lore sortak jaso zituen besteak beste, Aldunditik eta Gorka Lizarraga Gizarte zerbitzuetakoz zingotziaren eskutik. Cipriana Salamancako Sobradillo herrian jaio zen eta bertatik iritsi zen Lasarte-Oriara 1961. urteko uztailean bere senarra eta zazpi seme-alabekin. Familia Urdaneta kaleko etxean hasi eta ondoren, 1968an, Zumaburu plazara aldatu zen Roblesek azaldu moduan "Augusto Notoario senarrak Michelinen lan egin zuen". Egun lau seme-alaba bizi dira eta horietatik hiru izan ziren Atsobakarren egindako omenalditxoan familiako beste kide batzuekin batera, hauek adierazi moduan, 23 biloba ditu Ciprianak eta 17 birbiloba.

3 AISIA Oinatzekin Gaintza eta Larraitzera irteera

Urtarrilaren 26an irteera antolatuta da Txindokiren magalean kokatuta dauden Gaintza eta Larraitzera. Ibilbidea egin ostean, parte hartzen duten haur eta gaztetxoek Txindokiko Itzala abentura parkera sartu ahal izango dira. Ttaku-nen izena eman behar da urtarilaren 21a baino lehen.

4-5 FUTBOLA Gipuzkoako ohorezko mailatik Euskal Ligara

Javi Olaizola, Jose Manuel Loiarde "Gorri" eta Agustin Castro txikitatik egon dira baloiari pega-pega eginda futbolari izateko ilusioz. Orain entrenatzaile lanetan dihardute Ostadar Lasartearrako kadeteak prestatzen Euskal Ligan. Lehen urtea da maila honetan eta gustura dabilza.




6 ATLETISMOA Eneritz Busto Euskadiko txapeldun

Urtarrilaren 4 eta 5ean, Euskadiko proba konbinatuko txapelketa egin zen Donostian, 60 metro hesi-lasterketa, altuera jauzia, pisu jaurtiketa, luzera jauzia eta 600 metro lasterketa. Eneritz Busto herritarrek Euskadiko eta Gipuzkoako kadete mailako pentatlon errekorra gainditu zuen.

Odolkia- Solomo ontzutua
Solomoa baratxuritan
Tripakiak- Saltxitxak
Etxeko txorizoa
Basurde burua
Baserri pateia
Txistorra

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

ADURIZ DE LASARTE S.A



BERTAKO FABRIKAZIOA

Neure kabuz



Unai Muña

Min dut bihotzean

Gora bihotzak! Min dut bihotzean. Errabia barreiatzen da nire erraitean barrena kaleratze bakoitzean. Ez naiz ausarta ordea, eta neure izuan gordea, salbatzailearen zain dihardut otoiitzean. Beharrak behar, odolaren balioz irabazitako eskubide murrizketak irensteare... eta gaitz erdi, gainontzean... Zer gertatuko litzateke baina, egoera kritiko hau iraultzea lortzean? Desberdin jokatuko al genukeen erratuak oroitzean? Min dut bihotzean.

Bidean bada garbitu beharreko sasi eta belar txarrik, parlamentutik bankura. Arazoaren gako nagusia baita sistemaren hezurdura, baina, noren kontura? Bideoz grabatu ezingo diren pelotazo eta porrazoen zentsura, eta ardura, eskutik eskura... Lehen esku bat bolantean eta bestea leihopean, orain berriz, bi eskuak burura. Autokritikarako garaia heldu da.

Karreretako zaldien pare, alboetara begiratu gabe, egin gara honddorik ez duen luxuzko zakuaren jabe. Kontuz! Bizilagunen sorbaldaren gainetik begiratu, baloreak galdu ditugu hala ere. Eta orain, salbatzailearen zain, gauden bezala gaude... Dena da aldarri, haserre eta atsekabe, baina norberari dagozkion erantzukizunak, non daude?

Burtsaren osasuna, Jaurlaritzako ogasuna, enpresa handi, ertain eta txikien etuasuna, munduko hirugarren gerra ekonomikoa denaren oihartzuna... Salgai jarri dute herri-tarron askatasuna, geuk oparitu dieguna. Zer da ordea etxean zain mantentzen gaituena? Bildurra eta aspaldi galdu genuena; elkartasuna.

Salto bihotzak, eta iratzarri nau neguko hotzak. Zergatik ez ditugu erakusten hortzak? Diosta nire baitan marmarreen ari den ahotsak. Zein den norberaren errua baleki bakoitzak... Gorbatahun *cohiba* ketan desagertu dira gure bizipozak, txokoa kizkurtuta gauzkan bitartean guztia galduaren lotsak.

Erakutsi hortzak diosta barruko ahotsak. Gora bihotzak!!!

Zorion agurrak



Dario

Zorionak bigarren urtebetetzean gure etxeko txiki-handia .

Unai

Zorionak Txapeldun!! Segi horrela prexioxo! 7 muxu pottolo etxeko guztien partetik

Narao

Zorionak printzesa, lau txokolatezko muxu Oihan, amatxo eta aitatxoren partetik.



Enaitz

Aupa mutiltxo! Zorionak!! txokolatezko 6 Muxu pottolo, Elaia eta aitatxoren partetik.

Aitzol

Ez jarri aurpegi hori! 34 urte ez dira ezer zu bezalako kirolari peto batentzat. Zorionak lankideen partetik!

Iñaki

Zorionak "bollito" Jalguneko lagun partetik! Bezalakoa izaten jarraitzea nahi dugu aurten.

Alazne

Zorionak! Zu zara munduko "Mako" politena. Txokomarrubizko muxuak Jalguneko lagun partetik.



Maidier

Zorionak bitxito!! Txokomarrubizko 5 muxu etxeko partez!

Aran

Maite zaitugu bihurri!! Ondo pasa zure eguna. Familia eta lankideen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Vega Santos Cabaco, abenduaren 30ean.
- Aiala Erro Lojo, abenduaren 29an.
- Markel Irurzun Dominguez, abenduaren 28an.



Heriotzak

- Jose Manuel Merchan Hernandez, urtarrilaren 9an, 83 urte zituela.
- Maritxu Irazustabarrena Etxeberria, urtarrilaren 7an, 74 urte zituela.
- Paca Niño Miguel, urtarrilaren 4an, 93 urte zituela.
- Antonio Candela Lorente, urtarrilaren 2an, 47 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 11**
Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Larunbata, 12**
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Igandea, 13**
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Astelehena, 14**
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Asteartea, 15**
Acha-Orbea, Hipodromo eto. 6 943 363549
- Asteazkena, 16**
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Osteguna, 17**
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chucua, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Pisua konpartitu nahi dut. Zentroan dago, handia eta argitsua da. 300 euro hilabetean. Harremanetarako, 647 884 278.
- 34 metro karratuko lokal komertziala salgai Sasotetan. Prezioa: 25.000 euro. Harremanetarako, 662919138 edo 617175226.

Salerosketak

- Umeentzako aulki bat salgai egoera onean. Maclaren Techno-xt markakoa. Erosten duenari egurrezko seaska bat oparituko nioke. 687 965 454.
- Plataforma bibratorioa salgai. Podium Power. Merke. Iker 618 098 075
- Biziketa TREK Serie 8 8000, 2010ekoa, salgai. Iker 618 098 075

- Wii kontsola mando eta jokoekin, helduentzako bizikleta eta flexioak egiteko tabla salgai. Dena 300eurotan saltzeko prest, banaka saltzeko prest. Ana 943 36 33 71

Lan-eskaintzak

- Pertsona bat behar da DBH4ko matematikako klaseak emateko. Telefono: 610752140

Lan-eskariak

- Neska bat eskeintzen da interna moduan lan egiteko; pertsona adinduak zaintzeko. Telefono: 663552573
- Negutegietan, garbitzaile edo frutarekin lana egingo nuke. 625 423 540
- Emakumea eskaintzen da haurrak edo pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egiteko

- orduka edo interna moduan lan egiteko. Harremanetarako, 608 131 170.
- Ume edo aiton-amonak zaintzen, etxeko edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Doris 943 40 40 15
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauka. Harremanetarako, 619 803 199.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I., Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muña, Gorika Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

AISIA

Oinatzekin Gaintza eta Larraitzera

Irteeran parte hartzeko izena eman daiteke urtarrilaren 21a arte Ttakunen

Oinatz taldeak urtarrilaren 26rako irteera antolatu du Txindokiko magalean kokatuta dauden Gaintza eta Larraitzera. Parte hartzen duten haurrek Txindokiko Itzala abentura parkean bukatu ahal izango dute eguna.

Dagoeneko Euskal Herriko txoko askotan izan dira Oinatzekoak, historia eta natura uztartu ohi dute eta hala izango da ere 2013rako prestatutakoetan.

Taldearen hurrengo irteeran Gaintza eta Larraitz arteko ibilbidea egingo dute urtarrilaren 26an, larunbatean, Txindokiren magaletik hain zuzen. Larraitzen gainera Txindokiko Itzala abentura parkean gozatu ahal izango dute izena ematen duten umeek. Antolakuntzatik familiak animatzen dituzte irteeran "lagun artean eta euskaraz" parte hartzera.

Igartubeiti baserria

Oinatzeko ikasturtea Igartubeiti baserria eta Zumalakarregi museora egindako bisitekin hasi zuten urriaren 12an. 25 lagun izan ziren bertan eta lehenengo Ezkioltsason dagoen XVII. mendeko Igartubeiti baserri museoak ikusi zuten. Bertan tolarera

martxan ikusteko aukera izan zuten eta sagardoa dastatu, txalaparta jo, kirikoketan aritu ziren besteak beste.

Ondoren, Ezkion elizako aterpean bazkalduta indarrak hartu eta Ormaiztegiara joan ziren Zumalakarregi museora.

Txindokiko magala

Urriaren hasitako bidea jarraiki beraz, urte berriari hainbat dira taldeak antolatutako txangoak eta lehenengo urtarrilaren 26koa izango da.

Autobusa Jalgitik aterako da 10:00etan eta Txindokiren magalean kokatuta dagoen Gaintzaraino eramango ditu parte hartzaileak. Handik ibilbidea egingo da Larraitzeraino eta bertara iritsita haurrek Txindokiko Itzala abentura parkean aritzeko aukera izango dute. Honetarako sarrera 10 eurokoa izango da eta bertan ordainduko da.

Ekintza 2005.urtean edo lehenago jaiotakoei zuzenduta dago. Abentura parkea itxi-



Igartubeiti baserriaren aurrean Oinatz irteeran parte hartu zuten lagunak.

ta dago eta soilik taldeentzat zabaltzen da, beraz, beharrezkoa izango da 15 umeen taldea osatzea antolakuntzatik azpimarratzen denez.

Honetan gelditu nahi ez dutenek ibilbidea luzatu ahal izango dute Auza Gaztelu mendiko tontorreraino.

Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Ttakuneko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta ez bazkideek 12.

Hurrengo ibilaldiak

Datozen hilabetetan egingo diren ibilaldiak ere prestatu dituzte. Otsailean Leitzalarrea basora joango dira eta Perure-

na harrijasotzaileak daukan harriaren museora. Apirilean, Gaztelugatxe ezagutu eta Gorrondona txakolindegian bisita egingo dute txakolina nola egiten den ikusteko.

Maiatzean, iaz bezala, Azkorteke egunarekin bat egin eta txangoa antolatu dute Lasarte-Oriako mugetatik. Herriko bitxikeriak eta aspaldiko kontuak ezagutzeko aukera izango da eta Azkorten, erromerian, hamaiketako egingo da.

Herritarren parte hartzea sustatzeko, ibilaldi proposamenak jasoko dira aurrerantzean kultura@ttakun.com helbidean.

BIYAK BAT

Urteko kuotaren ordainketa

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere bazkideei gogortu nahi die urteroko kuota, 8 euro, dagoeneko oraindu daitekeela egoitzako bulegoan. Ordainketa egingo martxo amaiera arte aukera izango da goizeko 10:30etik 12:30erako ordu-tegian.

Era berean, hiru hilabete hauetan, 2011 eta 2012 urteko bazkidetza ordaintzen ez dutenei baja emango zaiela jakitera ematen du elkarteak. Bestalde, 85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin beharko.

ELKARTASUNA

Saharako elikagai bilketa

"Saharar herriaren lagunak" elkarteak martxan jarri du Euskal Karabana. Saharako kanpamenduetara elikagaiak eta bestelako produktual bidaliko dituzte otsailean eta hauek aste hauetan jasoko dituzte. "Aljeriako lurretan, milaka errefuxiatu basamortuan jarraitzen dute egoera tamalgarrian" azpimarratzen dute elkarte-tik.

Horretarako elkarteak herritarren laguntza eskatzen du eta besteak beste, arroza, azukrea, lekaleak, pasta, sardinak, atuna eta konpresak eskatzen ditu. Produktu hauek dagoeneko jasotzen ari dira Lasarte-Oriako ikastetxeetan eta zentro zibikoan. Elikagaien bilketa urtarrilaren 18a bitartean egingo da.

MERCATARITZA

Aterpearen saskiak

Aterpea herriko merkatarien elkarteak Gabonetako kanpainan zozketatutako saskiak honako herritarrentzat izan zirela jakitera eman du: Saturnina Rodriguez, Juan Luis Anula, Idoia Garzon, Juan Andres Rebollo, Izaskun Aramendi, Arkaitz Illarramendi, Contxi Lopez, Maider Pontesta, Ainara Fernandez, Ivan Benitez, Beatriz Unanue, Iker Arzadun, Miren Ortiz de Zarate, Rafael Maimon de la Barreda, Manuel Martin, Soledad Argerey, Jaione Zaldua eta Rosa Obeso.

Herritar hauek produktu ezberdinez osatutako saskiak eraman dituzte etxera. Saski bana zozketatu zen Aterpea osatzen duten denda bakoitzean. Zorionak guztiei.

Presoen eskubideen aldeko mozioa ez zen onartu

Oihiko udalbatzarra izan zen asteartean. Gai zerrendan puntu bakarra zegoen aurre ikusita, Bildu eraman zuten Herrira mugimenduak egindako eskaera. Pablo Barriok irakurri zuen mozioa:

"1.Espainiako Gobernuari eskatzea presoen eta haien hurbilekoen giza eskubideak errespetatzen dituen espesxe politika aplikatzeko. Neurri hauek zigorra bizilekutik hurbil betetzeko eskubidea eta osasun eskubidea bermatu behar dituzte, baita beraien zigorra bete duten presoen askatasuna eta zigorraren 3/4ak (edo 2/3ak) bete dituzten baldintzapeko askatasuna. 2.Udalaren kezka adieraztea astebururo presoen senitarteko eta lagunek sufritzen duten arriskua dela eta, eta elkartasuna adieraztea sakabanaketaren biktimei. 3.Espainiako Gobernuari eskatu bete dezala Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 2012ko uztailaren emandako epaia, eta libre utz ditzala bizilagun diren Mitxel Turrientes, Ina Orotegi, Kepa Rezabal eta Nikolas Francisco. 4.Aditza eman Udala prest dagoela herriko bizilagun pre-



Udalbatzar laburra izan zen astearteko.

soen giza eskubideen defentsan lan egiteko, eta haien senitarteko eta hurbilekoen egoera arintzeko. 5.Guztiagatik, udalak bat egingo du Herrira mugimenduak deituta urtarrilaren 12an Bilbon egingo den mobilizazioarekin, eta adierazten du prest dagoela akordio sozial zabal horren alde lan egiteko. 6.Udalak erabakiaren berri emango die herritarrei, eta bakearen eta giza eskubideen errespetuaren aldeko lanean inplikatu daitezzen animatuko ditu".

Mozioa ez zen aurrera atera, alde Bildu, Plataforma eta EAJ-ren abstentzioa eta PP, PSE-EE eta Marisa Zubiriren kontrako bozkek. Estitxu

Alkortak bere bozka azaldu zuten azpimarratuz ez daudela ados testuaren osotasunarekin.

PSE-EEren galderak

Ondoren galderen txanda izan zen eta honetan Jesus Zaballosek hartu zuen hitza.

Blas de Lezoko garaieetako arazoari irtenbidea emateko asmoa dagoen galdetu zien, "lanen proiektua onartuta dago eta gauzatzea da soilik". Nerea Sanchezek aurten lanak gauzatzeko asmoa dagoela esan zion.

Zaballosek azalpenak eskatu zituen jartzekoak ziren informazio panelei buruz, Ana Prietok esan zion hauek jarriko direla udalaren logo berria

edukitzerakoan "merkeagoak izateko, brigadak egin ditu".

Hondakinen gaiari helduz, Zaballosek salatu zuen oraindik ez dela udal batzorderik eratu 5. edukiontzia azterketa sakona egiteko "hilabeteak dira batzordea sortuko zela erabaki genuela eta ez duzue ezer egin, agian gaia luzatu nahi duzue?" Hori beste batzorde batzuk bezala, urte berriarekin eratu eta berriz martxan jarriko direla argitu zuen alkateak. N-1 errepidearen azpian algak berriz daudela eta, alkateak jakinaren gainean zeudela azaldu zuen eta gaia bideratzen ari direla.

Eguberrietako parkea

Hiru istripu izan dira Eguberrietako parkean eta honen informazioa eskatu zen oposiziotik. Taxio Arrizabalagak argitu zuen hiru haurrek besoa hautsi zutela eta aztertzen ari direla gaia "ez dirudi neglijentziarik egon denik, hala ere, gaia aztertzen ari gara". Bestalde, Zaballosek proposamena luzatu zuen Manuel Lekuona-kafetegia langabetuen plataformaren esku uzteko.

Javi Olaizola, Jose Manuel Loiarre "Gorri" eta Agustin Castro Ostadar SKT-ko futbol entrenatzaileak

“Prestakuntzak dakartza emaitzak”

■ Kadeteen Euskal Ligan Ostadarrek duen taldea zuzentzen dute 2012/2013 denboraldian
 ■ Euskal Herriko talde handien aurka ari dira; lanerako grina eta ilusioa ez dituzte falta

Futbola barru-barruan bizi dute Olaizola, “Gorri” zein Castrok eta hitz egitean nabari zaie, pasioz sentitzen baitute herrian erroten dagoen kirola. Txikitatik egon dira baloia pega-pega eginda futbolari izateko ilusioz, eta orain entrenatzaile lanean dihardute Ostadar Lasartearako kadeteak prestatzen, Euskal Ligan. Zelai ertzetik jokatzeko dute orain futboleko, mutikoen zuzendari eta maisu. Gazteok adina gozaten dutela baieztatu dute.

JON ALTUNA BGT/EGI

Urte eta denboraldi gogorra zituzten printzipioz aurretik Euskal Ligarako jauzia egitean, baina lehen itzulia amaituta 22 puntu dituzte eta 10. daude sailkapenean, jaitsera postuetatik urrun.

Zorionak, nolako izan da Gipuzkoako Ohorezko mailatik Euskal Ligarako saltoa? Entrenamendu sisteman eragirik izan al du?
Olaizola: Mila esker. Kontuan hartu behar da Euskadin kadete mailan dagoen kategoriora goren dela, eta badago diferentzia aurreko urtearekin alderatuta, bai.

Entrenamenduei dagokienez, egin dugun bakarra astean hiru saio egitetik lau egitera pasatzea izan da. Herriko taldea izanik, herriko jokalariekin aritzeko daukagun filosofia kontuan hartuta eta aurrean topatuko genituen izen handiko taldeak zein ziren jakinda: Erreal, Athletic, Alaves, Eibar... argi genuen lan gehiago egin beharko genuela, eta gogorrago gainez.

Gorri: Azipiegitura aldetik, beste taldeen beldurgarriak dira gurekin alderatuta, eta jokalariek fitxatzen aritzen dira etengabe.

Dabid eta Goliaten arteko guda bezalako da gurea, baina gure esku dagoen gutzia egiten ari gara eta egiten jarraituko dugu aurrerantzean.

Lehen itzulia amaitzerako, 10. Postuan zaudete eta 22 puntu poltsikoratuta. Amestutako maila izan al du?

O: Ondo doakigu Liga. Hamaikako lehiakorra osatu nahi genuen, asteburuko partidak jokatu bakarrik ez, irabazteko lehiatuko zen taldea nahi genuen, eta agian bai, hasieran uste genuena baino gorago gaudela.
G: Hasieran egia da kategoriora berriak nolabaiteko errespetua eragiten zigula, baina partiduz partiduz goraka joan gara eta lehiakorra izan gara gorabeheraz betetako aste ezohiko batean Errealearen aurka jokatu genuen partidua kenduta.

Ba al dago besteen gainetik dagoen talderik? Non markatzen duzue aurtengo helburua?

O: Denboraldia hastean, zortzi talde “ukiezin” zeudela esan zigen Euskal Ligan urte asko daramatzan jendeak, eta hori ikusita, jaitsera postuetatik libratzeko borrokan egongo girela uste genuen. Baina ekipoa hazi egin da, sailkapeneren erdian gaude orain.



Olaizola eta Gorri aurtengo denboraldiko lehen partidaren, adi-adi baloia begira.

G: Ohikoena izaten da Ohorezko Mailatik Euskal Ligara jauzi egiten duten taldeak hurrengo urtean jaitsea.

Guk argi genuen ez genuela aurreko denboraldian Zaramagari gertatutako gertatzerik nahi: urte osoan 150 gol jaso zituzten eta bost bakarrik sartu. Hori ez da disfrutatzea, hori sufritzea da.
Castro: Lehiatzea eta disfrutatzea da helburua, maila handiko jokalariek dauzkagu, ez jaitsea lortu behar dugu.

Zer sakrifikatu behar izan duzue entrenatzaile lanetan aritzeko? Denbora asko kentzen al dizue?

O: Denboraldia hastean, zortzi talde “ukiezin” zeudela esan zigen Euskal Ligan urte asko daramatzan jendeak, eta hori ikusita, jaitsera postuetatik libratzeko borrokan egongo girela uste genuen. Baina ekipoa hazi egin da, sailkapeneren erdian gaude orain.

“Hamaikako lehiakorra osatu nahi genuen, asteburuko partidak jokatu bakarrik ez, irabazteko lehiatuko zen taldea nahi genuen eta hasieran uste genuena baino gorago gaudela”

O: Nik pertsonalki denbora asko eskaintzen diot honi.

Urte hasieratik planifikazio bat daukat prestatuta hiru bloketan banatuta: alor fisikoa, alor tekniko-taktikoa eta alor estrategikoa.

Urratsez urrats goaz, pixkanaka eta momentu honetan entrenatzaile izateaz gain lanik ez dudenez, gorpuz eta arima ari naiz proiektu honetan lanean.

G: Jabik egiten du dena eta entrenamenduak oso ondo prestatzen ditu biziak, aldakorrak eta eritimo handikoak izaten direlako. Ez dago aspertereko betarik, ez dira batera monotonoak.

C: Lanetik zuzenean etortzen naiz eta gauza batzuk alboratu behar izan ditut, baina nahi izan dudalako, ez inork hala behartuta! Oso gustura joan gara entrenatzaile gisa.

Talde guztietan bezala, denetik egongo dela suposatzen dut, baina orokorrean jarraera egokia al dute mutikok?
O: Sorpresa itzela hartu dut, taldeari errendimendua oso azkar ateratzen hasi garelako, 22 puntu ditugu jada, pentsa.

Egia da adina konplikatu dela mutilentzat, herri bat da Lasarte-Oria, eta badaude mutil inplikatuak eta hainbeste inplikatuak ez direnak, badaude beste lehenatasun batzuk dituztenak.



Javi Olaizola eta Jose Manuel Loiarre “Gorri” Realearen aurka Zubietan jokatuak partiduen aurretik hamaikakori argibideak ematen.

jokalariek eta badaude futbolariek lehenatasun bezala hartu daudenak.

Eta tira, lehengo urtean jarraera aldetik gurekin talde itzela kontuan hartuta, gehixeago kostatzen ari zaigula esango nuke.

G: Baina gustura gaude, 18.000 biztanleko herrian bizi garelako kontuan izanda, ia pentsaezina zen ematen ari garen maila ematea.

C: Hain goian egongo girela ez genuen uste. Mutikoei lehen ordutik esan genien oso gogor entrenatu beharko zutela, eta hala ulertu zuten.

Ze punturaino barerarazi behar zaito 15 urteko mutiko bati lehiakortasunaren mentalitatea?

O: Euskal Ligara igotzean, helburua konpetitzea da, noraino iritsi gaitzekin ikusi.

Klubak hiru talderi ematen die garrantzia berezia: Ohorezko jubenilei, Ohorezko erregionalei eta guri. Beraz, lana gogor egin behar dugu. Guk uste dugu prestakuntzak dakartzala emaitzak, kategoriaz gozatu nahi dugu, jakina, baina ridikulurik egin gabe, lehiatuz.

Klubaren aldetik beraz, babes osoa jaso duzue ezta?

G: Oso gustura gaude ez klubarekin bakarrik, gurasoak ere primeran portatzen dira gurekin. Batzuek jada lau urte daramatzate gure ondoan eta beti daude laguntzeko prest.

Ostadarri eskerrak eman beharrean gaudu, partiduek oso ordutegi onean jarri dizkigulako eta babestuak sentituko garelako, ez daukagu xenitza.

Lasarte-Orian dagoen futbole...

rako grina, talentua eta harrobia ikusita, Erregionalek eduki al dezakete taldea goragoko kategoriaren batean?

G: Pixkanaka talde guztiak maila handiagoan jokatzeko ari dira, eta jokalariek talde handien aurka indarrak neuruzten egiten dira.

Egia da aurtengo Ohorezko Erregionalek kategoriora berria jokatzea ordaintzen ari direla, baina hain guri bezala gertatzen zaie, dituztenak baino diru eta azipiegitura gehiago behar dituzte.

C: Harrobi ona daukagu eta jokalariek bikainak ere bai. Baina ez da hain erraza, izan ere herriko jokalariek onak kanpora jokatzerara joaten dira berehala, eraman egiten dituzte klub handietara.

G: Jakina eduki dezakeela goragoko talde bat, baina Agustinek esan duena gertatzen da. Mutiko onenak eraman dizkigute, eta Athletic edo Errealearen kasuan ulertu dezaket, eta gainera uste dut positiboa dela, baina Antiguokoen egiten duena... Ez zait ondo iruditzen.

Hala ere, aurtengo gure taldeko bi jokalariek Antiguokoen deia jaso eta Ostadarren geratzera erabaki zuten. Ohore handia izan zen guretzat, urteetan egindako lana fruituak ematen ari denaren seinale izan zen gazteen erabaki hori eta kanpora begira itxura ona daukagula erakutsi genuen.

Zer jasotzen duzue mutikoen gaitzerik eta zer saiateren zaretze zuek ematen?

O: Kategoriora hauetan hainbat aspektu landu behar dituzte: Hezitzaile, psikologo, aita, erdi-lagun izan behar duzue, euren ezinegok eta zalantzak kudeatzen jakin behar du entrenatzaileak.

Denok daukagu seme-alabak eta alde pertsonala ere jartzen saiateren zara, euren zuek erabakitzea eta beste jokalariek zuek erabaki duzue. Pena handia ematen du egoerak.

Michelingo futbol zelaia txiki geratu zaito Lasarte-Oriari...

O: Begira, ordu eta laurden eskasako entrenamenduak egin ditzaizue zelai erdian soilik erabili. Entrenamendu bat gehiago sartzeko, areto futboleko pista erabili izan dugu.

Michelingo zelaiarekin dagoen arazoa da enpresa batek kudeatzen duela, eta ez duela irerikiar ordutegia luzatu nahi. Guregatik balitz, gaurdian ere bukatuko genuke entrenamendua, baina hori ezin dugu ezer egin.

Klubak gauza asko planteatu ditu, proiektu ugari prestatu ditu... Eta bai, beste zelai bat beharko genuke. Ezinezkoa da kategoriora gertatzen diren talde sortarekin Lasarte-Oriari zelai bakarra edukitzea...

G: Egoera moldatu beharko dugu.



Gogoz ekin zioten jokalariek denboraldiari maila berria. Egun hamargarren doaz 22 puntuekin.



FUTBOLA.-

Ostadar eta Texas fase berrian sartu dira

Ostadar SKT eta Texas Lasartearra futbol taldeetako Erregional, jubenil eta kadeteak denboraldiko bigarren zatian daude dagoeneko. Ostadar STK-ko I. erregionalak igoera fasea hasi zuen lehengo asteburuan eta aste honetan, Texas-eko erregionalak, Ostadarreko jubenilek eta herriko bi taldeetako kadeteek kopa lehiaketa hasiko dute.

Aurreko asteburuan eman zitzaizen hasiera maila ezberdinetako igoera faseei.

Erregional mailan Ostadar SKT-ko taldea bere multzoko lehenengo sailkatu zen eta Josean Beldarrainen mutilak Ohorezko mailara igotzeko lehian daude. Eta ederki hasi dute txapelketa, 2-1 irabazi baitzioten Oiarzuni.

Texas berriro kopan

Texas Lasartearra erregionalako taldea, berriz, bosgarren izan zen lehengo fasean. Era honetara, Koldo Ageitosen taldeak ezagu-

na duen kopa txapelketa jolas-tuko du.

Ostadarreko jubenilak ere bosgarren sailkatu ziren txapelketa lehengo zatian eta orain, kopa izango dute helburu.

Berriro aurrez aurre

Kadete mailari dagokionez, bai Ostadar eta bai Texas taldeak kopa jolastuko dute.

Ostadarreko mutilak igoera fasean egoteko aukerak izan zituzten lehenengo faseko hirugarren postuagatik. Baina ez ziren multzo ezberdinetako hoberenak izan eta kopa jolastu behar dute. Texas berriz, zazpigarren izan zen sailkapenean.

Gauzak honela, bi taldeak berriro ere aurrez aurre ikusteko aukera izango da lehiaketa berri honetan. Baina aurretik aste honetan lehengo jardunaldia jokatu behar da. Texas Lasartearrak Trintxerpe Azkuene taldea izango du aurrez aurre. Ostadarreko taldeak atsedena du.

OHARRAK.-

Igerilekua itxia larunbata arratsaldean

Udal Kirol Zerbitzuak jakin arazten du urtarrilaren 12an, larunbata, arratsaldean, igerilekua itxia egongo dela, txapelketa dago eta.

ATLETISMOA.-

Busto Euskadiko txapeldun

Euskadi eta Gipuzkoako pentatlon errekorra egin zuen

Urtarrilaren 4 eta Sean, Euskadiko proba konbinatuetako txapelketa izan zen Donostian eta Eneritz Busto gazteak kadete mailako errekorra hautsi zuen.

Nerea EIZAGIRRE

Euskadiko proba konbinatuetako txapelketa izan zen lehengo asteburuan Donostiako belodromoan eta LOKEko bi ordezkari Eneritz Busto eta Maider Rekondo izan ziren lehian pentathlonean.

Eneritzek kadete mailako urrezko domina eta errekor berria eskuratu zuen eta Maider Rekondo berriz, seigarren izan zen jubenil mailan.

Errekorra

Eneritz Busto erregularra izan proba guztietan eta lehenengo postuetan izan bost probetan.

60 metro hesi-lasterketan 9,56 marka egin zuen; altueran 1,58 metroko jautzia egin zuen, pisuan 9 m. jaurti zituen; luzera jautzian 4,49 metro egin zituen eta 600



Eneritz Busto gazteak Euskadiko eta Gipuzkoako errekorra hautsi zituen pentathlonean.

metro lasterketan 1:57:20-ko marka egin zuen.

Marka hauei esker, puntuaketa bikaina egin zuen, 2968 puntu eta kopuru honekin Euskadiko eta Gipuzkoako kadete mailako pentathlon probako errekorra gainditu zituen. Aurreko errekorra Super Amara BAT taldeko Teresa Zaragüetak egin zuen 2011ean eta 2781 puntukoak ziren.

Eta honetaz gain, Valentziar martxoan izango den Espainiako txapelketarako sailkapena eskuratu zuen gazteak.

Eneritzek Espainiako txapelketarako marka gutxienekoa egiteko asmoa zuen, baina

ez zuen espero lehiaketa irabazi eta errekorra egitea. "Oso pozik nago," adierazi digu. Eta hemendik martxora, pisua eta 600 metro lasterketa landu behar dituela aipatu digu.

Jubeniletan

Bestalde, Maider Rekondo gazteak seigarren postuan amaitu zuen jubenil mailako proba.

Maiderek bere espezialitatean gaintu zituen arerioak, pisuan. Honetan 9,93 metro jaurti baitzitu.

Beste probetan 60 metro hesi-lasterketan, altueran, luzera jautzian eta 800 metroko lasterketan 4 eta 6. postu artean ibili zen.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 12

Michelinen, 10:30ean

Ostadar-Martutene I. Infantilak

Urnietan, 10:30ean

Urnietan-Ostadar

Infantil txikiak, kopa

Michelinen, 12:00etan

Ostadar-Barakaldo

Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga

Michelinen, 13:45ean

Texas Lasartearra-Trintxerpe Azkuene

I. Kadetea, kopa

Michelinen, 15:30ean

Texas Lasartearra-Asoleus

I. Erregionala, kopa

Ubitarte, Andoain, 15:30ean

Euskalduna-Ostadar I. Jubenila, kopa

Michelinen, 17:15ean

Ostadar-Touring

Erregional Ohorezko maila

Argixoa, Zumarraga, 18:30ean

Urola-Ostadar

Enakumezkoen maila

Igandea 13

Michelinen, 10:00etan

Ostadar-Sanpedrotarra

I. Erregionala, igoera

Michelinen, 11:45ean

Ostadar-Amaitak Bat

Jubenil Ohorezko maila

Michelinen, 13:30ean

Ostadar-Mariño

Infantilen Ohorezko maila, kopa

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 11

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

19:30ean, Buenetxea-Ana eta Soi ileapaindegia

20:20ean, Txindoki taberna-Izarra bitxitegia

21:20ean, Ori kristaldegia-Indaux

Larunbata 12

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

10:30ean, ISU Leioak-Urdaneta H.K.

11:30ean, Trumoi-Izkiña

12:30ean, Albalñeria Vertical-Illargi taberna

13:30ean, Balerdi harategia-Ei Punto

Kiroldegia, 17:00etan

Aldaz H.K.-Laskorain

Nazional III. maila

Bekoerota kiroldegia, Lezo, 17:00etan

Allerru Jaizkibel-ISU Leioak

Gipuzkoako Liga, I. maila

PILOTA

Ostirala 11

Alegia, 19:00etan

Intxurre-Intza

Eskuz binaka, II. Kadetea

Larunbata 12

Añorga, 15:30ean

Añorga-Intza

Eskuz binaka, infantilak

Michelingo pilotalekuan, 16:00etan

Intza-Euskal Jolas

Eskuz binaka, II. jubenila

SASKIBALOIA

Larunbata 12

Kiroldegia, 15:30ean

Ostadar-Orioko ikastola

Parte hartze liga, kadete neskek

ATLETISMOA

Larunbata 12

Hernani, 10:00etan

Landaberri, Sasoeta-Zumaburu eta

Lasarte IB ikastetxeetako alebin eta

infantilek pistako eskolarteko

lehiaketako proba libreak dituzte.

Igandea 13

Eigoibar, 10:00etan

LOKEko eta herriko hainbat atleta

LXX. Juan Muguerza nazioarteko

krusean izango dira lehian.



IGERIKETA

Larunbata 12

Kiroldegia, 16:00etan

Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior

eta absolutu mailako igerilariek

Errendimendu eta Partehartze

Ligako I. jardunaldia dute.

ERRUGBYA

Larunbata 12

Michelin, 11:00etan

Beltzak Ostadar Zarautz-Bera Bera

Infantil federatua

Mungia, 11:30ean

Urbealde-Beltzak Ostadar Gure

etxea Kadeteak

Igandea 13

Eibar, 10:30ean

Beltzak Ostadar benjamin eta

alebinek topaketa dute.

Asti, Zarautz, 11:00etan

Eskolarteko infantil mailako Beltzak

Ostadar Zarautz taldeak Atletico

San Sebastian eta Irun taldeekin

topaketa du.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 12

Antonio Elorza belodromoan, Donostia,

9:45ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko kadete eta junior mailako

gazteek Gipuzkoako pistako

txapelketan parte hartuko dute.

Atsokabar parkea, 11:00etan

Bazpi Txirrindularitza eskolako

kideek alebin eta infantil mailako

haurrekin saioa egingo dute.

Igandea 13

Antonio Elorza belodromoan, Donostia,

9:45ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko kadete eta junior mailako

gazteek Gipuzkoako pistako

txapelketan parte hartuko dute.

JUDO

Larunbata 12

Tolosa, goiza osoa

LOKE taldeko alebin mailako

judoka gazteek eskola kirola

egitasmoa finalerako sailkapen

jardunaldian parte hartuko dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 13

Legazpi, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak


denboraldiari hasiera emango dio

taldekako txapelketako lehen

jardunaldiarekin.

Agenda

Igandea 13, 17:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Heroia izan nahi duen gaiztoa

Haurren zinea atalean, "Rompe Ralph" filma ikusgai izango da. Ralph ek gaiztoaren papera bete izan ohi du arkade jolasetan eta orain jatorra izan nahi du. Edo probatu behintzat. Ralph ek Fix-It-Felix-bideo jolasaren heroia bezain maitatua izan nahi du. Raph joko honetan sartu eta domina guztiak lortzea izango du helburu. Baina nahi gabe jolas guztiak suntsitu ahal dituen pertsonaia uzten du aske. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 13, 19:30ean

Okendo Zinema taldea, Euskal Presoen lagunak taldea eta Herriraren eskutik, "Barrura begiratzeko leihoak" film dokumentala eskainiko dute helduen zinema atalaren barruan. Bost zinemagilek bost preso edo iheslariren bizitza erakusten dute. Sarrerak leihatilan, 5,85 euro; internetez, 5,30 euro. Euskaraz.

Osteguna 24, 21:30ean

Ostegun zinea atalaren barruan, "Le

Skylab" film frantsesa, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 4,65 euro; internetez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 27, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Asterix al servicio de su majestad" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 27, 19:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, "Le Skylab" film frantsesa, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,85 euro; internetez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 25, 23:00etan

Lasarte-Oriako Arramazka taldearen Argilunpetan diskaren aurkezpena izango da. Sarrera doan.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 26, 18:00etan

Magia eta musikaz betetako "Ali Baba eta 40 lapurrak" ipuin ezaguna antzezlan modura eskainiko du Borobil antzerki taldeak. Haurrei zuzendua. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,24 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Urtarrilan zehar

Naroa Etxeberria margolariaren lanak ikusgai daude.

Andoain

Musika

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 11, 21:30ean

"Su Txikitan" antzerkia eskainiko du Elliott Murphy-ren kontzertua. Olivier Durand gitarristaren eta The Normandy All Star Band taldearen laguntza izango du. Sarrera, 15 euro.

Astigarraga

Antzerkia

KULTUR-ETXEA

Larunbata 12, 20:00etan

"Su Txikitan" antzerkia eskainiko du Glu-Glu antzerki taldeak. Sarrerak leihatilan, 6 euro; internet bidez, 6,50 euro.

Igandea 13, 17:30ean

Haurrentzako antzerkia, Txalo produktioak "Jon Beldurgarria" antzezlanak aurkeztuko du. Sarrera leihatilan, 2,50 euro; internet bidez, 2,70 euro.

Usurbil

Zinea

SUTEGI AUDITORIOA

Ostirala 11, 19:30ean

Iñaki Otxoa de Olzaren erreskateari buruzko dokumentala "Pura vida" filma eskainiko du Andatza Mendizale Elkarteak.

Herritarren txokoa

Ate irekiak Santa Teresa ikastetxean

2013-1024 ikasturterako matrikulazio epea urtarrilaren amaieran irekiko denez, Donostiako Santa Teresa ikastetxeak ate irekien jardunaldia izango duela jakin arazten du.

Urtarrilaren 15ean, asteartea, 15:30etik 17:00etara izango da eta haur txikiak dituzten lasarteoriatar guztiak daude gonbidatuak.

LOKEren loteria

LOKEk jakin arazten du, Gabonetako zozketako saria, Aginagako sagardotegian lau pertsonentzako afaria, 6.058 zenbakiko txartelak irabazi duela.

Era berean, Txartel-Txoko jabetxean lau pertsonentzako afaria 2.260 zenbakientzat izan da.

Txartel hauen jabeak Manuel Moralesekin jarri behar dira harremanetan honako zenbakian, 656 715 700.

"Jarri izena plaza hauei" ekimena

Udalak San Pedro eliza ondoko eta Loidi-Barreneko Babes Ofizialeko etxebizitzaren aurreko plaza berriei

izena jartzeko galdeketa jarri du martxan.

Kultura sailak toponimien lanketa egin ondoren plaza bakoitzari izena jartzeko bi aukera proposatu ditu: San Pedro eliza ondoko plazari Elizatze plaza edo San Pedro plaza eta Loidi-Barreneko plazari Hilerrri plaza edo Tximistarreta plaza.

Honela, iritzia emateko parte-hartze postontziak edo www.lasarteoria-sarean.eu webgunera egin ahal izango dela jakitera eman du Udalak. Iritzia emateko aukera urtarrilaren 27an bukatuko da.

Korrika 18-aren arropa salgai

Korrika 18aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte.

Korrika egiteko talde amateur

Herrian korrika egiteko talde amateur sortu nahi da. Lehenengo urratsak!! Zita, ateri dagoen astelehenean 20:00etan hipodromoko zubian. Karakol eta bareak animatu!

Eskutitza

Bakarrizketan

Itsasoak ez du bakarka jarduten, itsaoko ur tanta bakoitzak bere indarra elarazten dio paretaren aurka talka egingo duen ur oldeari. Honela, tanta bakoitzaren lana beharrezkoa bilakatuko da aurrean duen murrua hankaz gora jaurtitzeko.

Baina murrua mugitzen ez bada etsitzerik ba ote dago?

Ez dut uste itsasoak etsiko duenik, ez dut sinesten bere etsipenean, bai ordea parean duen murruren ahuldadean. Ahul dabil murrua, ahul dabilzan bezala estatuak.

Zein estatu ordea?

Hego Ipar ditugun biak.

Horiek soilik?

Ez dut uste. Estatu asko dira kordelaren azken higadurarekin eroriko direnak, hara bestela txokolatearen errein den Belgika. Edo eta Ingalaterra ahalguztiduna. Dena ez da betirako eta albo bi estatu horiek ere ez dira betirako.

Preso dituzte ordea hainbat herritar?

Halaxe da bai. Gatibu esango nuke nik. Hori da min emateko duten azken puntuetako bat. Beraien azken erresis-

tentzia gunea, trintxera bat gatazka politikoaren erdian. Horregatik gara horren beharrezko herritar bakoitza, ur tanta gisa, trintxera hura apurtu eta gatazka politikoaren oinarrietara mugituzko.

Baina presio egiteko gai ote gara?

Bai noski, herritarrok dugu boterea, ez pentsa Estrasburgo edo Europak lagunduko gaituenik, are gutxiago egoera honetan lasai bizi diren alderdi politikoek. Guk herrietatik, aginte guneei presio eginez lortuko dugu.

Baina herrietan nola antola daitezke jendea? Gaur egun ia inor ez baita mugitzen.

Gaur egun jendea ez da lehen gisan mugitzen, baina mugitzen da. Ez dira militante klasikoak, baina egiten dira gauzak. Lantalde goxoetan, ilusioak batutik eta ez lanak.

Helburu argiekin eta herrian. Hitz egin eta egin. Batu, egin eta desegin. Baina olatuak handitzeko joera izan behar du aurrean duen murrua txikitzeko.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Iñaki Petxarroman Kazetaria

“Hondakin gutxiago sortu behar da”

■ ‘Su haietatik ke hauek. Errausketatik Zero Zaborrera’ liburua argitaratu du kazetariak
 ■ Hondakinaren plana ezagutu zenetik pasa diren 10 urteko albisteei bere iritzia gehitu die

Hondakinaren inguruko eztabaida toki askotan pil pilean dagoen momentu honetan, “Su haietatik ke hauek. Errausketatik Zero Zaborrera” liburua argitaratu du Iñaki Petxarroman kazetariak gaiaren inguruko gako batzuek emanaz: “arreta hondakinaren bilketa moduetara, atez ateko edo edukiontzien bidezko sistemetara desbideratzen ari da eta jendea ahazten ari da benetakoa mamua, inposaketa eta jendeari beldurra ematen dion proiektua errauste planta dela eta izan dela hamar urteotan” esan digu lasarteoriatarrek. Hain juxtu duela hamar urte plazaratu zen hondakinaren Gipuzkoako plangintza eta hamar urte hauetako ibilbidearen kronika eta bere iritzia plazaratu du.

Jon ALTUNA IZA

Askotan idatzi du Egunkaria eta Berriako orrietan Iñaki Petxarroman kazetariak hondakinaren inguruan; informazio hori guztia antolatu eta bere iritzia txertatuz osatu du Txalapatara argitaletxeak argitaratu duen liburua.

Su haietatik ke hauek?

Bai. Adierazi nahi nuen gaur egun Gipuzkoan dagoen grinaz betetako eztabaida bizi hori ez dela gaur egun sortu eta bapatean zerutik erori. Badauka ibilbide historiko bat: lehenagotik ere elementu asko egon dira eztabaida horren oinarrian eta elementu nagusia errauste planta da.

Hortik etorri da izenburuaren bigarren partea: “Errausketatik Zero Zaborrera”.

Azken 10 urteotako informazioari zure iritzia gehitu diozu, ezta?

Hori da. Hemerroteka lana egin dut, ibilbide historiko hori, jendeak ulertzeko moduan, ahalik eta modu eskematikoenean jarri eta nire iruzkin batzuek gehitu ditut, liburuari nire ukitu pertsonala emanaz.

Ez dira kontu berriak, baina gaia pil-pilean dago...

Bai, hondakinak sortzen genituen orain dela hamar urte eta sortzen ditugu orain ere.

Aldatu dena, beharbada, arazoari begiratzeko modua da. Garai batean zaborra poltsa itxi eta itsu horretan bota eta norbaitek eramango zuten. Gaur egun, gehiago eskatzen zaigu: hondakinak gureak ere badira eta badugu zereginik.

Aldaketa handiena atez ateko bilketarekin etorri al zen?

Ingurumenari kalte egiten dioten beste hainbat proiektuen

kontrako mugimendu bat sortu denean, normalean ezezkoaren lerroan geratu da gotortuta.

Prozesu honetan, aldiz, ezezkoatik alternatibatarra pasa da, horregatik da funtsezkoa Usurbilek eman zuen pausoa, hondakinak ehuneko 25-30etik ehuneko 80 birziklatzera hila-bete eskas batean.

Horrek errausketaren aldekoen artean alarmak piztu zituen, bereziki, Hernanira zabaldu zenean: hogei mila biztanleko herri deigarri honek erakutsi zuelako funtzionatzen bazuen Gipuzkoako osora zabaldu zitekeela.

Deserosoa da, hala ere, horrelako apustu bat udalentzat...

Bai. Zaila da. Jendea ohitura konkretu batzuekin bizi da. Iruditzen zaio, oro har, zaborra ez dela bere arazoa, eta ardua eskatzen zaionean ez du positiboki erantzuten.

Ulertu dezaket jendearen erosokeria hori, baina diferentzia izango litzateke gaur egun eztabaida, lehenengo errauste plantaren proiektua herri horietako batean planteatu izan balitz. Orduan seguraski beste era batera ikusiko zitzuten gauzak. Irtenbidea, azkenean, ahalik eta gehiena birziklatzea da ez izateko, ez errauste plantaren, ez zaborregiaren beharrik.

Lasarte-Oriari nahiko hurbil tokatu zitzaion, baina atez atekoa probatzeko aukera bertan behera geratu zen?

Nik damu eta kezka bat badaukat Lasarterekin. Batetik lasartearra naizelako eta bestetik errauste plantaren proiektuak herriren bati zuzenean kalterik eragingo bazion, Lasarteri eragingo lioke, eta arduratzen nau ez duelako herri bezala behar bezalako erantzunik eman. Horrek pena ere sortu dit.



Iñaki Petxarromanek Berria egunkarian egiten du lan.

.....
**“Galdera da, libre izan behar al du kutsatzeak?
 Nire ustez ez. Derrigorrezkoa izan behar du
 norberak bere hondakinak birziklatzeko”**

Orain 5. edukiontzia martxan jartzea erabaki dute PSOE, PP eta EAJk. Zein da bi sistemen arteko alde nagusia?

Gipuzkoako Hondakinaren Plangintza Nagusiak onartutako lehen txostenean esaten zen 5. edukiontzia sistemak ez duela ezertarako balio. Batetik, bosgarren edukiontzia giltzarri izan baldin baduzu, oso aukera minoritarioa izaten delako. Oso kontzientziadunek egiten dute soilik. Eta irekita uzten baldin baduzu oso litekeena da norbaitek ez birziklatzea, dena hor botatzea eta beste askok ondo egin dutena izorratzea.

Gipuzkoan martxan jarri den tokietan oso minorarioa da. Edukiontzia sei edo zazpi herritan zabaldua zegoenean, Usurbil bera bakarrik organiko gehiago biltzen ari zen beste sei edo zazpi herri horietan baino. Hor dena dago esanda.

Egia da azkenaldian gauza aipagarria gertatu dela Urnietan: Familien erdia agertu da organikoa bereizi eta bosgarren edukiontzia erabiltzeko prest. Izugarriko jautzia da, baina ehuneko 50 kanpao gelditzen da. Urnietan oso kontzientziatua dagoen herria da lehen errauste planta han jarri nahi zutelako.

Teknikoki argi dago emaitza onenak zein sistemak ematen dituen. Bi sistemen arteko alde nabarmena da, batean derrigorrezkoa da birziklatzea eta bestean ez.

Baten bati gaizki irudituko zaio derrigorrezkoa izatea, baina gaur egun derrigorrezkoak dira hainbat arau, alkoholik edan gabe gidatzea esaterako.

Galdera da, libre izan behar al du kutsatzeak? Nire ustez ez. Derrigorrezkoa izan behar du birziklatzeko.

Zergatik ez du inork nahi erraustegirik etxe ondoan?

Minbizia sortzen duelako, malformazio genetikoak, disfuntzioak... Frogatuta dago, Osasunaren Munduko Erakundeak onartutako gauzak dira. Beste kontu bat da zenbaterako arriskuaren menpe bizitzeko prest gauden.

Egia da jendeak erretzen duela eta horrek ere minbizia sortzen duela. Baina ez dezatele esan arriskurik ez dagoenik.

Orduan nork eta zergatik du erakitzeko interes handia?

Interes ezberdinak daude, interes politikoak eta enpresa interesak daude. Politikoki bi alderdi egon dira nabarmen oso interesatuak EAJ eta PSE, eta bestalde, erakitzea alorreko eta energia alorreko hainbat enpresa handi daude.

Erraustearen aurrean zein da alternatiba?

Nire ustez birziklatzea eta herritar ardura aktibatzea da alternatiba. Norberak norbere etxetik egin ahal duena egitea hasteko. Gutxiago kontsumituz, gutxiago kutsatuz, gure etxetik bertatik, errotera joaten garenean benetan zer behar dugun pentsatuz. Ohitura aldatetako.

Hondakinik onena sortzen ez dena da, eta sortu denean txukun jardutea birziklatu ahal izateko, gero ez behar izateko ez zabortegirik eta ez erraustegirik. Ez eragiteko ez gure inguruneari, ez guri eta ez gure ondorengoei.

Hernanin bizi zara, zer moduz atez ateko sistemarekin?

Ez da konplikatu. Hondakin ezberdinak bereizi eta sailkatzeko etxean espazioa behar duzu, eta ordutegien aldetik diziplina ere eskatzen du, baina hori herritarroei eskatu beharrekoaren gutxiena da.